

# LAG-EN AURRERAPENAREN AURKEZPENA BILBON

## 2016/12/12

**Tokia:** Begoñako Auzo Etxea (Club Deportiboren Zirko Amateurraren kalea, 2)

**Iraupena:** Ordu bat eta erdi

### Parte-hartzaileak

Izena	Udalerria	Elkartea/erakundea/...
Jesús Cantero		
Fernando Hevia	Getxo	BETSAIDE
Karmelo Anakabe	Bilbao	
Iñaki Xabier Zarandona	Elorrio	
Enrique Antolín		
Pedro Rodríguez Toyos	Basauri	BIDEBI BASAURI, S.L
Margarita Almgreu		BETSAIDE
Iratxe Arriola	EA	Udala (EA)
Ana Etxeandia	Zamudio	Udal arkitektoa
Benjamín Palacios	Ermua	Udal arkitektoa
Maria Erquicia	Bilbao	
Asier Odriozola	Basauri	Udal arkitektoa

## Eusko Jaurlaritzako ordezkariak

Izena	Kargua
Fernando Uriondo Ispizua	Lurralde Plangintzaren eta Hirigintzaren zuzendaria
Jesús M <sup>a</sup> Erquicia Olaciregui	Lurralde Antolamendurako eta Plangintzarako Zerbitzuko burua
Pilar Monjas Rubio	Bizkaiko Lurralde Antolamenduko arduraduna
Tomas Orallo Quiroga	Zuzendaritzako Aholkularitza Juridiko Alorreko arduraduna

## Laguntza teknikoak

Izena	Enpresa
Jon Aguirre Such	Paisaje Transversal
Iñaki Romero Fernández de Larrea	Paisaje Transversal
Ana Izquierdo Lejardi	Inguru

## Aurkezpena

Parte-hartzaileei, iritsi ahala, erregistro-orria datu pertsonalekin betetzeko eskatu zaie.

Fernando Uriondo Ispizua Lurralde Plangintzaren eta Hirigintzaren zuzendariak ekitaldiaren aurkezpen ofiziala egin du eta, oro har, parte hartzeko prozesuaren garapena azaldu du. Hala adierazi du prozesuak bi ardatz dituela: erakundeen parte-hartzea eta herritarren parte-hartzea. Lehen ardatzaren garapena azpimarratu du eta bidea eman dio Paisaje Transversali bigarren ardatzaren garapena azaltzeko.

### Parte hartzeko prozesuaren azalpena

Paisaje Transversaleko Iñaki Romerok eta Jon Aguirrek parte hartzeko prozesu orokorra aurkeztu dute, herritarrek parte hartzeko prozesu digitala eta presentziala nabarmenduta. Era berean, labur adierazi dute gaiaren, eremu funtzionalaren eta izaeraren araberako ekarpen kopurua.

### LAG-en Berrikuspenaren Aurrerapen-dokumentuaren azalpena

Jesús M<sup>a</sup> Erquicia Olaciregui 97ko LAGetatik bidean dauden egungo LAGetara iristeko gertatu den bilakaera deskribatu du. Jarraian, proposatutako Aurrerapen-dokumentua, atalak eta nobedadeak zehatz-mehatz azaldu ditu.

## Jendeak egindako galderak eta ekarpenak

Jarraian, bertaratutako jendearekin ireki den eztabaidarako txandan egindako galderak eta ekarpenak jasotzen dira:

+ Galdera: Galdera zabala LAGen hainbat alderdiren gainean, zehazki:

- 1- Uste da Berrikuspen honetan ez dela indarreko LAGen Eredua aldatu.
- 2- LAGek nahikoa eskumen izango al duite alderdi lotesleak definitzeko?
- 3- Kuantifikazioari eta etxebizitza hutsari dagokionez, eta duela gutxi onartutakoaren arabera, bizitegi-kuantifikazioaren Aldaketan ezarritako minimoa mantentzeari dagokionez.

- Erantzuna: Lurralde Antolamendurako eta Plangintzarako Zerbitzuko buruak erantzun ditu goiko galderak:

- 1- LAGen berrikuspena 1997an definitutako Lurralde-eredutik abiatzen da, sortu diren diziplina-oinarri berriak txertatuz, mantentzen diren alderdietan maila loteslea sustatuz eta areagotuz eta, ikusitakoaren arabera, beste bide batetik jo duten alderdiak aldatuz. Zehazki:
  - a. 1997an aintzat hartu ez ziren zeharkako alderdien kapitulu osoa gehitu da. Hau da: genero-ikuspegia, klima-aldaketa, osasuna, euskara, irisgarritasun unibertsala eta lurralde-erlazioa.
  - b. Ingurune Fisikoari buruzko kapituluak, funtsezko alderdietan baliozkoa zena, Azpiegitura berdearen eta Ekosistemen zerbitzuen inguruko hausnarketarekin osatu egin da.
  - c. Landa-habitatari buruzko kapituluak Landa-inguruari buruzko kapituluaren bertsio eguneratua barne hartzen du, baita landa-inguruneak lurraldearen bermatzaile eta zaindari gisa duen funtsezko rola ere.
  - d. Hiri-habitatari buruzko kapituluak eraikitako hiriaren, egungo xasisaren, gainean jarduteko modua azpimarratzen du bereziki, honako hauen bidez: Hiri-birgaitzea eta -berroneratzea, Hiri-hazkundearen perimetroa, Jarduera ekonomikoen lurzorua erreforma eta birdentsifikazioarekin, Bizitegi-kuantifikazioa proposamena baloratuta, etxebizitza hutsetan sartuta eta dagoeneko urbanizatuta dauden lurzoruei eraldatu ez diren lurzoruei ez bezalako tratua eskainita.
  - e. Paisaiaren auzia, 90/2014 Dekretuan jasotzen dena, bere osotasunean txertatu da.
  - f. Baliabideen kudeaketa jasangarriari buruzko kapituluak Urari, Energiari eta Ekonomia zirkularrari buruzko kapituluaren gaineko hausnarketa eguneratuak barne hartzen ditu.
  - g. Mugikortasunari buruzko kapituluak jasangarritasunaren ikuspegia barne hartzen du, oinezkoen, txirrindularien, trenbideko, portuko eta aireportuko mugikortasuna nabarmenduta.

Azken batean, LAGen Berrikuspenak maila kualitatiboan aurrera egiten du, indarreko LAGen Lurralde-ereduaren gainean.

- 2- LAGen Berrikuspenak indarreko LAGei dagokienez aurrera egin du gidalerro bakoitza lotesteko modua argituz; horretarako, Araudiaren gaineko berariazko atal bat sortu da, non nahitaez bete behar diren gidalerroak eta, betetzen ez badira, egindako erabakia eta gidalerroak ezarritako helburuekin duen bateragarritasuna berariaz arrazoitzera behartzen duten gidalerroak argi identifikatzen diren.

Horrenbestez, LAG hauek proposamen sendoak egiten dituzte, esleitutako eskumen-esparruaren barruan.

- 3- Bizitegi-kuantifikazioaren aldaketak babes handia jaso du herritarrek eta erakundeek parte hartzeko prozesuan. Gutxieneko zenbatekoa eta gehieneko zenbatekoa ezartzen zituen urkilaren aurrean, minimoa kentzea erabaki da. Hortaz, etxebizitza gehiagorik eraiki nahi ez duten udalerriek etxebizitzarik ez eraikitzea erabaki dezakete.

+ Galdera: Nola jarraituko du parte hartzeko prozesu honek? Parte hartu ahal izango dugu Hasierako Onarpenaren aurretik?

- Erantzuna: Lurralde Antolamenduari buruzko Legeak (LAL) erakundeek parte hartzeko eta jendaurreko informazioko zenbait mekanismo xedatzen ditu eta, horien ondorioz, kontsultak egin behar dira estamentu desberdinekin, besteak beste, EAELABrekin eta Lurralde Politikarako Aholku Batzordearekin, zeinek Aurrerapenaren eta administrazioak entzuteko ondorengo epearen gaineko txostenak prestatuko dituzten. Alabaina, Legeak xedatutakoa zabaltzen duen parte hartzeko prozesu bat egiteko asmoa dago, beste hainbat erakunderen eta eragileren ekarpenak jasotzen dituen; beraz, etapa honetarako parte-hartzea diseinatuko da eta parte hartzeko prozesuak aurrera egingo du.

Orain LALak xedatutakoa egingo da. Hau da, EAEko Lurraldearen Antolamendurako Batzordearen eta Lurralde Politikarako Aholku Batzordearen txostenak oinarri hartuta, 3 hileko epea irekiko da Administrazio guztiek ekarpenak egin ditzaten. Aurrerago, dokumentu berri bat prestatu ostean, EAEko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeak eta Lurralde Politikarako Aholku Batzordeak beste txosten bat igorriko dute, eta hortik Hasierako Onespenera pasako da. Ekarpenak entzuteko hiru hileko epe horretan hain zuzen sartu behar dugu parte-hartzea. Eta parte-hartze hori nolakoa izango den pentsatu behar dugu talde berriarekin batera.

Gogoan izan behar dugu hau dokumentu bizia dela eta ekarpenak egin daitezkeela.

+ Galdera: Zer gaitan har daiteke parte AHTa ukitu ez bada?

- Erantzuna: AHTa, gainerakoek bezala, iritzia jaso dituen azpiegitura oso aurreratua da.

+ Galdera: Zergatik ez dira jasotzen uholde-arriskua konpontzeko aurrekontuak?

- Erantzuna: Uholde-arriskuaren zehaztapenak arautzen eta xedatzen dituzten hainbat lege-tresna daude. LAGei dagokienez, indarreko gidalerroek aurrerapauso handia egin zuten arlo horretan eta ibilguak babesteko zenbait irizpide, baita bertan eraikitzekeo debekuak ere, ezarri zituzten. EAEko Ibai eta Erreketako Bazterrak antolatzekeo LPSak gidalerro horiek zabaltu eta xehatu egin zituen.

Lurralde-antolamenduari lotutako tresna hauek ez ezik, URAk ere lan bikaina egin du ibaiak eta ibaiertzak zein horien ibilguak babesten, kontserbatzen eta berreskuratzen. Horretarako, politika, plan eta aurrekontu zehatzak bultzatu dira.

Ondorioz, bai URA, bai hiri-berrikuntzen sustatzaileak arduratuko dira mota honetako esku-hartzeak finantzatzeaz. LAGei ez dagokie aurrekontuak egitea, izaera orokorragoa baitute.

+ Galdera: Zer egin behar da lurzoru kutsatuetan?

- Erantzuna: Kontu honek garapen handia izan du EAEn. Lurzoru Kutsatzaileei buruko Legeak arautzen du zer egin behar den lurzoruaren kutsadura saihesteko eta zuzentzeko.